Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

2596

EBAZPENA, 2010eko maiatzaren 18koa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2010eko apirilaren 12an organo horrek emandako Ebazpena –euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako «Jesús María Leizaola» –2010 sarirako deia egiten duena– aldatzen duena.

Sariaren helburua hobeto adierazteko, sarirako aurkez daitezkeen lanek jorra ditzaketen arloak jasota agertzeko, beharrezkoa da lerroalde berri bat gehitzea hirugarren oinarrian. Lerroalde berri hori izango da oinarri horren hirugarren lerroaldea.

Guzti hori kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2010eko maiatzaren 12ko Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren Ebazpena –euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako «Jesús María Leizaola» –2010 sarirako deia egiten duena, eta maiatzaren 18ko EHAAn argitaratua izan zena– aldatzea. Aldaketaren edukia izango da, lerroalde berri bat sartzea hirugarren oinarrian. Lerroalde berri hori oinarriaren hirugarren lerroaldea izango da eta honelakoa izango da:

Hau da, sarirako aurkez daitezkeen ikerlanek esparru horiek jorra ditzakete: autonomietako estatuaren konfigurazioa eta Euskal Autonomia Erkidegoa; Euskal Autonomia Erkidegoko eraketa, errealitatea eta etorkizuna; beraren gobernu-erakundeak, maila politiko-administratibo guztietan; historia, kultura, bibliografia, zuzenbide, ekonomia, aurrekontu, fiskalitate eta beste arloen inguruko berariazko berezitasunak; eta euskal administrazioetako diseinu, antolaketa eta etorkizuna.»

Bigarrena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluaren eta hurrengoen arabera. Horretarako, hilabete bat izango da ebazpen honen argitalpena egiten den eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Errekurtso hori

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

2596

RESOLUCIÓN de 18 de mayo de 2010, de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se modifica la Resolución de 12 de abril de 2010, del mismo órgano, por la que se convoca el premio «Jesús María Leizaola» 2010 para trabajos elaborados desde distintas perspectivas de estudio y cuyo objeto tenga relación con la autonomía vasca o pueda redundar en el estudio y profundización de ésta.

A fin de especificar, en mayor medida, el objeto del premio, haciendo alusión a los ámbitos materiales sobre los que cabe que versen los trabajos de investigación que concurren al premio, se hace preciso introducir un párrafo en la cláusula Tercera, que figure como tercer párrafo de la misma.

Por consiguiente,

RESUELVO:

Primero.– Modificar la Resolución de 12 de abril de 2010, de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se convoca el premio «Jesús María Leizaola» 2010 para trabajos elaborados desde distintas perspectivas de estudio y cuyo objeto tenga relación con la autonomía vasca o pueda redundar en el estudio y profundización de ésta (Resolución publicada en el BOPV de 18 de mayo de 2010), introduciendo un nuevo párrafo en la cláusula Tercera, que figurará como párrafo tercero de esta cláusula, con el siguiente literal:

«Así, podrán concurrir trabajos que versen sobre la configuración del estado autonómico y la Comunidad Autónoma del País Vasco; la construcción, realidad y perspectivas de la Comunidad Autónoma del País Vasco; la configuración de sus instituciones de gobierno en los diferentes niveles político-administrativos; sus peculiaridades históricas, culturales, bibliográficas, jurídicas, económicas, presupuestarias, fiscales, y de otros órdenes; así como el diseño, organización y perspectivas de las administraciones vascas.»

Segunda.– Contra la presente Resolución de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública podrá interponerse recurso de alzada, según lo dispuesto en el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente al de la publicación de

ebazpena hartu zuen organoari aurkez dakioke edota, bestela, Justizia eta Herri Administrazio sailburuari. Errekurtsoari erantzuna ematen ez bazaio, ezezkotzat hartu beharko da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 18a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.

esta Resolución. El recurso podrá interponerse ante el órgano emisor de esta Resolución o ante la Consejera de Justicia y Administración Pública. La falta de resolución expresa a dicho recurso tendrá carácter desestimatorio.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de mayo de 2010.

La Directora del Instituto Vasco de Administración Pública,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.